



**Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak sustatu eta finantzatutako proiektuaren inguruko KOMUNIKAZIO EKINTZA GUZTIEK:**

**1.- Aurkezpenak ( bai entitatearen barruan bai kanpora begirakoak), lan saioak, tailerrak, gutunak, online saioak, publizitatea, komunikabideak, sare sozialak ( twitter, Facebook.....), etab.**

Modu **EGOKI ETA ARGI** batean adierazi behar dute Departamentuaren laguntza.

Horretarako erabiliko dira: logoak “sustatu eta finantzatu” testuarekin batera; twitterren “#EkonomiaSustapena @gipuzkoa”, etab.

**2.- Zabalkunde publikoko edozein ekitaldi egin aurretik** (transferentzia- eta hedapen-tailerrak egitea barne):

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzari **HORREN BERRI** emango zaio, eta **BERTAN PARTE HARTZEKO GONBIDA** bidaliko da.

[Sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus](mailto:Sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus) helbidearen bidez



Horretarako kontuan izan beharreko alderdiak (araudiko 8. oinarria. Entitate onuradunen betekizun eta konpromisoak):

8.2 Euskal Autonomia Erkidegoko **hizkuntza ofizialen erabilera** bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeke Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa).

8.4 Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan **hizkeraren erabilera ez sexista**.

8.5 Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneke Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren **sustapen eta finantzaketari publizitate egokia ematea**, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzaketa publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenen bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.